


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %2,1 gehitu ziren 2019ko hirugarren hiruhilekoan

Aztertutako txikizkako azpisektore guztiek datu positiboak eskaintzen dituzte, pertsonaren ekipamenduan espezializatutako merkataritzak izan ezik

Eustaten arabera, 2019ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak %2,1 gehitu ziren prezio finkoetan aurreko urteko aldi beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %2,2 gehitu ziren urte arteko tasan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,6 erreala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

Azpisektoreen arabera, elikadurak %2,3 egin zuen gora salmentetan 2019ko hirugarren hiruhilekoan eta gainerako produktuen txikizkako merkataritzak, berriz, %2,1; automobilgintzarako erregaiaren salmentak %1,3 egin zuen gora, hori guztia 2018ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta eta prezio konstanteetan.

Elikagaien txikizkako merkataritzan, espezializatua %2,3 gehitu zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua, %2,2.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan zeinu ezberdineko aldakuntzak daude azpisektoreen artean. Etxeko ekipamenduan espezializatuan %7,6ko gehikuntza izan

da, kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %0,7koa eta, azkenik, gainerako produktuetan nagusi den ez-espezializatua %0,5 igo da; aldiz, pertsonaren ekipamenduan espezializatutako merkataritza %1,5 jaitsi da, hori guztia prezio konstanteetan.

Salmentak hiru lurraldeetan gehitu dira urte artean: Araban %1,4ko igoera izan da, Bizkaian %1,9koa eta Gipuzkoan %2,7koa, 2018ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

2019ko urtariletik irailera bitartean metatutako kopuruan, Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektoreak %1,6ko hazkundera izan du. Hazkunde hori elikaduran (%1,7), gainerako produktuetan (%1,5) eta automobilgintzako erregaian (%1,6) gertatu da. Positiboa da halaber eboluzioa hiru lurraldeetan: Araba urteko metatutan %1,4 hazi da, Bizkaia %1,6 eta Gipuzkoa %1,5, hori dena prezio konstanteetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

Euskal AE osoko txikizkako merkataritza-sektorean 2019ko hirugarren hiruhilekoan okupatutako langileak %0,3 igo dira aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta %0,2 igo dira 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Urtariletik irailera bitarte metatutako kopuruan, enplegatutako langileen kopuruak %0,3 egin du gora, 2018ko aldi beraren aldean.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. III/2019

	PREZIO FINKOAK		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,1	0,6	1,6
Araba/Álava	1,4	-0,1	1,4
Bizkaia	1,9	0,5	1,6
Gipuzkoa	2,7	1,0	1,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	2,3	0,4	1,7
Elikagaietan espezializatuta	2,3	0,4	0,8
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	2,2	-0,2	2,1
Beste produktuak	2,1	0,8	1,5
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-1,5	0,0	-1,4
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	7,6	2,0	4,4
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	0,7	0,1	1,0
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	0,5	0,0	2,7
Automoziorako erregaia	1,3	0,1	1,6
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	2,2	0,6	1,6
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	0,3	0,2	0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62